# Jon Arretxeren kontua eta kantua

## '7 kolore' disko-liburuak hainbat bidaiatako bizipenak biltzen ditu

**Orain dela hamar urte argitaratutako narrazio haiek birmoldatu ditu eta kantuak erantsi konpositore baten laguntzaz**

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. Hamar urte bete dira Jon Arretxek 'Zazpi kolore' liburua plazaratu zuenetik. Hori aitzakitzat hartuta, Basauriko idazleak nahi izan du hari beste bizialdi bat ematea, baina modu osoago batez: musikagile batekin eta marrazkilari batekin elkar hartuta, disko-liburua burutu du.

Musikaren egilea Francisco Ibáñez Iribarria da, Gasteizko Kontserbatorioko zuzendari ohia. Eta ilustrazioak –duela 10 urte bezala– Cristina Fernándezek egin ditu.

Jon Arretxe bidaiari a da eta zenbait bidaiatako bizipenekin osatu zuen liburu hura orain dela hamar urte. Amazonia, Aljeria, Mali, India, Pakistan, Txina, Indonesia eta Siberian ikusi eta sentitutakoak bildu zituen orduan.

Oraingoan, berriz, bi argitalpen egin ditu, bata euskaraz, bestea gaztelaniaz, eta gaztelaniazko itzulpena José Luis Padrónek egin du. «Nik aldaketa dezente egin diot testuari oraingo edizioirako. Padrónek, berriz, orduko hura itzuli du, bere horretan», esan zuen Arretxek atzoko aurkezpenean.

Zazpi testu dira guztira, bakoi-tza kolore baten ingurukoa. Hasierakoa kolore beltzaren ingurukoa da, «Mendebaldeko heriotzari buruzkoa. Hemen kolore beltza da doluarena, eta testu hori aita hiltzeko zorian zegoen garaian idatzi nuen», adierazi zuen. Hauxe da Euskal Herrian kokatutako atal bakarra, bestalde. Hain zuzen ere, ospitalean aita zaintzen egon zen lau hilabeteetan sortu zitzaion liburu hura idazteko ideia eta hantxe idatzi zuen hainbat orri ere.

Egitura bitxia du liburuak. Eta, esan bezala, liburuak berekin diskoa du. Zazpi dira atalak (beltza, grisa, horia, gorria, berdea, urdina eta zuria) eta atal bakoitzaren hasieran kantu baten letra, kantu horren pentagrama eta kontakizun bat datoz. Kolore beltzeko orriek ematen diote hasiera liburuari, han aitaren heriotza kontatzen duelarik.

**7 KOLORE**
*Egileak: Jon Arretxe, Francisco Ibáñez eta Cristina Fernández.*
*Argitaletxea: Erein.*
*Orrialdeak: 208.*
*Salneurria: 26 €*




Hain zuzen ere, ospitalean aita zaintzen egon zen lau hilabeteetan sortu zitzaion liburu hau idazteko ideia eta hantxe idatzi zuen hainbat orri ere.

Kolore bakoitzak bere sinbologia du. Beltza eta zuria heriotza sinbolizatzen duten bezala, gorriaren bidez beldurra eta




**Lankideak.** Cristina Fernández (marrazkiak), Jon Arretxe (testuak eta ahotsa) eta Francisco Ibáñez (doinuak), atzo Donostian. :: PEDRO MARTINEZ

## Keuk interneten hilero eskegitako kantuak, orain diskoan bilduta

**Abarlotz Olano zaldibitarrak lehen diskoa plazaratu du: 'Antilla'**

:: DV

DONOSTIA. Keu Agirretxeak (Ondarroa, 1973) disko batean bildu ditu aurtengo urtean zehar interneten dohainik eskegitako kantuak. Urtarrilean hasita, eta urria bitartean, hilero abesti bat ipintzen zuen, eta orain hamar ale horiek 'Denbora vs. kantuak' izeneko CDan bildu ditu, emaitza Gaztelupeko Hotsak disketxearen bidez plazaratu duelarik.

Ez da atzo goizekoa Keu Agirretxea ondarroatarra. Orain 37 urte ditu eta 20 egin ditu musikagintzan. Gitarra lagun ibili ohi da.

CDan formato akustikoan grabatutako hamar kantu berri daude, baxu, perkusio intimista eta tarteka haize instrumentuak ere bidelagun dituela. Letrei dagokienez, Mikel Etxaburu, Aiert Beobide eta Kirmen Uriberen laguntza izan du.

DVDa ere plazaratu du CDarekin batera, eta hor, aspaldiko lankide duen Mikel Araskistain baxu jotzaileak lagunduta, Durangoko Plateruenan eskainitako kontzertu akustikoa ikus daiteke.

### Abarlotz Olanoren debuta

Abarlotz Olanok (Zaldibia, 1980) bere lehenengo diskoa plazaratu du, 'Antilla', izenarekin bataiatua. Hamabi abesti ditu diskoak, batzuk Mixel Ducau eta biek konposatu eta ekoitziak. Disko horretan, bat egiten dute kantautoreen tradizio poetikoak eta gaurko euskal 'pop'ak.

Olanok konposatu ditu kantuak, eta batzuetan Ducauren laguntza izan du. Ipartar musikariak gitarra, alboka eta saxoa ere jotzen ditu. Beste musikari batzuek ere hartu dute parte: Victor Lezama (moldatzailea), Fredi Pelaez (teklatuak), Joxean Flores (bateria), Igor Oiarbide (baxua), Amaiur Karabilleja (kontrabaxua), Urbil Artola (dobro amerikarra), Arkaitz Miner (arrabita), Iñigo Egia (perkusioa) eta Caroline Philips (ahotsa eta zarrabetea).

Abeslari honek hamar urte daramatza musika munduan eta 2005ean Bortsun Saria irabazi zuen Euskal Kantu Txapelketan, donostian, 'Txori txiki bat naiz' kantuarekin, eta hain zuzen abesti hau da diskoko hamabietako bat.

**DENBORA VS KANTUAK**
*Egilea: Keu Agirretxea.*
*DVDa: Mikel Arakistain.*
*Disketxea: Gaztelupeko Hotsak.*
*Salneurria: 12 €.*



**ANTILLA**
*Egilea: Abarlotz Olano (Zaldibia, 1980).*
*Laguntzailea: Mixel Ducau.*
*Disketxea: autoprodukzioa.*




Diskoari izenburu ematen dion abestiak, 'Antilla' -k, behor zuri bat du protagonista. Abeslaria harekin mintzatzen da: «Txuria bezain argia zara Antilla / orlegiaren gainean zaude ezarria / belar berriak emanaz bizia / haizearekin batera zatoz niregana».

'Eskale', berriz, etxerik gabeko bati eskainia da, eta 'Ametsak' inmigranteez eta bizitzeko egin behar izaten duten borrokaz ari da.

Azkeneko abestia 'Zuri begiratuaz' da, maitasunari eta egiari eskainia. Emakume bati buruz ari da eta esaten dio: «Askotan zapaltzen naute zure begi horiek».

arriskua adierazi nahi izan du Basauriko idazleak. Kolore horri dagokion kontakizunean Amazonia aldean bizitutako estutasuna kontatu du, hain zuzen ere, jaguar batekin hiltzeko zorian egon zenekoa.

Arretxe eskertsu agertu zen atzo, bai argitaletxearekiko bai laguntzaileekiko. «Zaila zen horrelako proiektu batentzako argitaletxea topatzea, baina Ereinek segituan esan zuen baietz. Aspaldiko ametsa gauzatu da».

**Musika kultua**

Konpositorearen lanari buruz hau esan zuen Arretxek atzokoan: «Gasteizko Kontserbatorioan ezagutu nuen, bera zuzendaria eta ni kantuko ikaslea. Bete-betean asmatu du kolore bakoitzaren sentimendua adierazten. Musika kultua da. Ez da musika komertziala, ez da gidatzen duzun bitartean aditu dezakezuna».

Eta Francisco Ibáñezek hau gehitu zuen: «Koordinazio handiko lana izan da. Hasieran, Jonek kolore beltzaren testua eman zidan. Oso lan aberasgarria izan da niretzat». Eskarmentu handikoa da Ibáñez. Antzerkiaren arloan, ikuskizun ugaririko sortu du musika: Fiedrich Karl Woecthter-en 'Pailazo Eskola', Sergi Berbel-en 'Elsa Schneider', Miguel Cortazarren 'Un tal Ángel y Trentaytren' eta Bernardo Atxagaren 'Xola eta lehoiak'-erako, besteak beste. Zinemaren arloan, José Luis Cuerdaren 'Así en el cielo como en la tierra' filmeko doinuak sortu ditu.

Iñaki Belasko pianojolea da diskoko jotzaile nagusia. Gaur egun pianojole laguntzaile eta errepertorista da Bilboko kontserbatorioko Kantuko eskoletan. Aldi berean kamara eta kantuko errezitaldi ugaritan parte hartu du, Euskal Herri osoan nahiz Cantabria, Burgos, Zaragoza, Andalucia eta Madrilen. Halaber, OLBE-ABAOko denboraldietan maisu errepetidore gisa jarduten du.

Diskoko kantariak, berriz, Olatz Saitua, Enrique Campos eta Jon Arretxe bera izan dira, azkeneko hau bi abestitan jardun delarik, hasierakoan eta bukaerakoan. Pianoko ikasketak egin ondoren, kantukoak egin zituen Arretxek Gasteizko eta Bilboko kontserbatorioetan. Besteak beste, Ainhoa Merzero eta Olatz Saitua izan zituen irakasle. Gaur egun Ricardo Visus irakaslearen hobekuntza eskolak jasotzen ditu.

Olatz Saitua oso kantari ezaguna da. Bilbon jaioa, Orkestra Sinfoniko ugarirekin kantatu du, konpositore askoren obrak jorratuz: Bach, Haendel, Vivaldi eta Mozart, Mendelssohn, Mahler eta Falla, besteak beste.

Cristina Fernándezek, berriz, azpimarratu zuen azken hamar urteotan «bilakaera» izan duela bere marrazkigintzan, eta orain hobeto uztartzen duela eskua eta ordenagailua.

## Arabieratik euskaratutako lehenengo liburua: Xukriren 'Ogi hutsa'

:: F. I.

DONOSTIA. Igela etxeak Durangorako hiru nobedade aurkeztu zituen atzo, eta tartean Mohamed Xukriren 'Ogi hutsa'. Hain zuzen ere, hauxe da arabieratik euskaratutako lehenengo liburua. Eta Arantzazu Royo Manterola izan da aitzindaria.

Hau esan zuen itzultzaileak atzoko ekitaldian: «Liburu hau frantsesez irakurri nuen lehen aldiz, eta harrigarria iruditu zitzaidan miseria kontatzeko modu gordina, batere apaindurarik gabea: Xukrik nola kontatzen dituen bere bizimodu latzeko pasadizoak. Zer gertatu zen, zer pentsatzen zuen, nola bizi izan zuen... irudimenean egiten die aurre hainbat egoerari, eta hala esaten digu pasarteetako batean: 'ehertuko nintzen, irudimenagatik ez balitz'. (...) Nik arabiera ikasi nuen, itzulpengintza ere bai, eta biak lantzeko gogoa nuen. Liburu hau egokia iruditzen zitzaidan, lanean hasteko. Autobiografikoa da, kontakizuna, esaldi laburrez osatua... estilo xumea erabiltzen du Xukrik. Bere hitzetan esanda, 'Nire esaldia ez da arabiarra. Esaldi europartua da, batzuetan telegrafikoa; izan ere, esaldi arabiarra luzea baita (...)'. Kritikatu-ere egin zaio hori idazleari».

**OGI HUTSA**
*Egilea: Mohamed Xukri (Maroko, 1935-2003).*
*Itzultzailea: Arantzazu Royo Manterola.*
*Argitaletxea: Igela.*



Aurkezpen oso jantzia izan zen atzokoa. Itzultzaileaz gain, Miel Anjel Elustondo jardun zen, Xukrik gertutik ezagutu eta elkarrizketatzeko zoria izandako kazetari eta idazlea, zeinak idazle marokoarraren inguruko argazki sorta proiektatu baitzuen baita ere.

Liburu honezaz gain, Philippe Claudel frantziar idazlearen 'Linh jaunaren biloba' eta Agatha Christieren 'Stylesko gertaera misteriotsua' plazaratu ditu Igela etxeak.

Urte dezente dira Igela Agatha Christieren lanak euskaratu eta eskaintzen ari dela. Oraingo hau, hark idatzitako lehen nobela da; orduan sortu zen Hercules Poirot detektibe ospetsua.

ANDRÉS NAGEL
ARTISTA

# CHILLIDA LEKU NO ES PRESCINDIBLE

Me da vergüenza que se deje cerrar el lugar que concentra todo el sentido de la obra de la máxima personalidad en el arte que ha dado este país.



Es INDIGNANTE que se deje caer Chillida Leku. Como si nos sobraran patrimonio y personas que a lo largo de su vida, con inteligencia, ética y constancia, han sabido construir una obra con la carga y el alcance de la de Eduardo Chillida. Un centro que, además de lo que mostraba, contiene sus archivos personales, documentación de todo un momento artístico en relación con personalidades e intelectuales de su época, los estudios preparatorios, la colección completa de su obra gráfica (tan fundamental como la escultórica), una enormidad de dibujos, cientos de pequeños esquemas y maquetas claves en la comprensión de su trabajo y la importantísima colección de escultura. Un centro fundamental para el estudio de la obra de uno de los escultores más importantes y coherentes del siglo XX.

Estamos viviendo en medio del desprecio o, al menos, de la indiferencia hacia actitudes verdaderamente válidas en el mundo de la cultura. ¿Qué es lo que queremos? ¿Bling bling, parques temáticos, museos hechos de escaparates de navidad? ¡Como si nos sobrara material de primera para dejarlo escapar! No sé las reacciones que podría producir ese cierre; de todas formas, me avergüenza el trato humillante a una institución que desde la cercanía al autor ha sabido mantener el rigor del artista a través de conocimientos de primera mano. Me da vergüenza que se deje cerrar el lugar que concentra todo el sentido de la obra de la máxima personalidad en el arte que ha dado este país. Vergüenza por la ingratitud de nuestra comunidad hacia algo de lo que todos nos estamos beneficiando a diario. Las esculturas de Chillida no son objetos en un museo, sino algo que hace que nuestra vida sea distinta. Son presencias que están ahí aunque no las veamos; vuelven mucho más valioso el espacio en que nos movemos. El Peine del Viento no sólo define una plaza, pues su alcance llega toda una ciudad que nunca sería la misma sin él, al igual que Córdoba no sería la misma sin la Mezquita. Incluso para el ciudadano que nunca la haya visitado (que lo habrá) su presencia pesa demasiado para que no le afecte.

El cierre de una empresa produce unos problemas sociales y personales muy duros; las consecuencias de la clausura de un museo serio son dramáticas en su entorno.

Sé que San Sebastián es un lugar diminuto para la potencia de Chillida, pero da la casualidad de que nació aquí, el grueso de su trabajo lo hizo aquí y además teníamos la suerte de contar con un museo que reunía una gran parte de su trabajo. Parece ser que esto nos sobra. La cultura popular demuestra la riqueza de la vida de una comunidad, sin embargo los pensamientos sólidos y clarividentes son los que dan consistencia a las decisiones de futuro. Es probable que los artistas no hagan nada inmediatamente práctico, pero a la larga son los que contribuyen a poner orden de forma silenciosa en las cabezas de quienes toman decisiones. Para quien no quiera enterarse, estoy hablando de aquellos que manejan la política, la justicia y todo cuanto hace posible el desarrollo de una sociedad.

En la industria, una forma semejante de actuar se entiende como algo perfectamente normal. O la empresa funciona o se hunde. Ahí no se concibe de otro modo.

No obstante, en el terreno de la cultura en especial, son necesarias la presencia y la voz de personas capacitadas que piensen y actúen con independencia. En los últimos quince años el mundo del arte está marcado por el poder y el dinero, la calidad de un artista se mide con una cifra, la de un escritor por sus ventas, la de un museo en su cuota de entrada. El MOMA, para llenar sus taquillas, se ha convertido en un circo, pero no podemos permitirnos dejar caer la otra clase de riqueza ofrecida por ciertos museos de carácter más íntimo, en los cuales el fantasma de un pensamiento es capaz de perturbarnos, de sacarnos del atolondramiento cotidiano.



Hace algún tiempo que todo lo que hoy se llama cultura se reduce a frivolidades de parque temático. Las exposiciones suelen estar concebidas para ser vistas a toda velocidad. Un libro, la música o una película tienen que entretener.

Cuando oí por primera vez lo de 'San Sebastián ciudad cultural' pensé que era una campaña de alfabetización. Lo conté y se rieron. Si sobre esa primera impresión hubiera habido una sombra de cinismo, ésta se quedaría ahora corta. Si se cierra Chillida Leku será el acto cumbre de ese akelarre. El inventario artístico de esta ciudad consistirá en lo siguiente: un museo en obras con un patrimonio miserable, otro edificio semiabandonado y vacío con un futuro incierto. El KM, única sala de exposiciones con un proyecto encomiable, está amenazada con desaparecer engullida por el edificio semiabandonado. Hay también otra sala dedicada a exposiciones a lo nuevo rico, y un acuario muy visitado, además de un tiovivo del que no tengo datos.

Ahora me dirijo a quien tiene poder para ello, a esos políticos que inauguran lo que sea con una orquesta de percusión a sus espaldas y luego dejan que el abandono lo desmorone calladamente. Es que no se han enterado de que Chillida Leku no está en Hernani, de que forma parte del patrimonio inmaterial de todos nosotros. En estos páramos pocas hierbas crecen como para dejarlas morir y, si esto ocurre, que nadie se lamente en el futuro. Nadie podrá decir: no soy responsable, yo no estaba allí. Aquí estamos todos y Chillida Leku no es prescindible.